



Amorebieta-Etxano Udala  
Bizkaia

## Saila: OGASUNA, EKONOMIA ETA ONDAREA

Espediente zk.: 17-3735

### MEMORIA UDAL AURREKONTUA 2018

Agiri hau izenpetzen duenak, Udalburuak, indarrean dagoen legeriak ezarritako zehaztasunak aztertu ondoren, oroitidazki hau prestatu du, 2018ko ekitaldiko Udal Aurrekontuko zati delarik. Jarraian zehazten da:

#### JARDUN-ILDO NAGUSIAK

Oraindik ere bizi dugun egoera ekonomiko zaila kontuan izanda, Udalbatzak aurrekontuen proiektu honetan mahai gainean jartzen dituen jardun-ildo nagusiak ondokoak dira:

1. Gizarte kohesioa eta lurralde oreka dira lehentasun nagusiak.
2. Enplegu eta ekonomia arloa sustatzea, langabetuei enplegua lortzen laguntzeko eta sektore ekonomiko guztiak dinamizatzeko, batez ere herriko merkataritza.
3. Udaleko hiri planifikazio berria sustatu.
4. Udalerriko elkarte sarea bultzatzea; horretarako, herriko kultur, gizarte eta kirol elkarten ekimenetarako laguntza ekonomikoa ematen jarraituko du Udalak.
5. Auzoetan inbertitu (Etxano, Legarrobi, Astepe, Saratzu, Larrea, Ergoingo San Juan) eta udalerriko beste inguru batzuetan talde desberdinen oinarrizko betebeharrak asetzeko.
6. Udal azpiegituretan inbertitu herritarrei ematen zaizkien zerbitzuak hobetzeko (Musika Eskola, Ganeko igerilekuak, Udaltzaingoaren bulegoak, Nafarroa Zentroa, Urgozo kiroldegia eta udaletxean Herritarren Arreta Zerbitzua jartzeko).
7. Gizarte Ekintzara bideratutako partidak gehitu eta instalazioak egokitu.
8. Etengabeko hobekuntza herritarrei zerbitzurik onenak emateko tresna gisa. Herritarren Arreta Zerbitzua jarriz borobildu esandakoa.



**Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia**

2018ko Udal Aurrekontua 25. 633. 803 €-koa da. Horrenbestez, 2017koarekin alderatuz %1,37 igo da. Ustezko sarrera arrunten zenbatekoa 24. 805. 020 €-koa da. Diru-sarrera arrunten bidez gastu arruntak (21. 754. 794 €), mailegua amortizatzeko kuota (405. 320 €) eta aurreikusitako inbertsioen %77 (21. 754. 794 €) finantzatuko dira. Kapitalaren sarrerak gainontzeko inbertsioak (793. 783 €) finantzatzen dituzten hirigintza aprobetxamenduetatik elikatzen dira.

## ***GASTUEN AURREKONTUA***

Gastu arruntei dagokienean, 2017rako lansarien arabera lanpostu guztietarako aurrekontu zuzkidura aurreikusi da. 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorretan jasotako %1eko soldata igoera jaso da, aurrekontuak luza daitezkeelakoan.

Arduradunek eskatuta, ahal den neurrian, ondasunak erosteko zein zerbitzuak mantentzeko kredituak esleitu dira.

Oro har, 2017ko aurrekontuaren aldean, 2018ko Gastu Aurrekontuaren aldaketa nagusiak hauek dira:

### **1. kapitulua - Langileen ordainsariak**

Kapitulua guztira %4,15 igotzen da 2017koarekin alderatuz.

Gastu arruntei dagokienean, 2017rako lansarien arabera lanpostu guztietarako aurrekontu zuzkidura aurreikusi da, aipatu soldata igoera eta hiru urteko berriak kontuan izanda. Era berean, lanpostuen zerrendan aldaketak egin direlako aurrekontu plantillan egindako aldaketek bere isla dute aurrekontuan:

- Udaltzain lanpostu bat eta Ogasuna, Ekonomia eta Ondare Saileko teknikari plaza bat sortu.
- Arkitekto tekniko lanpostu bat, “lan kontratupekoa, funtzionarizatu beharrekoa” aldatu eta funtzionario plaza bihurtu.

Aurrekontu plantillatik kanpo bitarteko funtzionario birentzat aurrekontu kreditua dago. Bat pertsonaleko teknikaria izango da eta bestea euskara teknikaria. Biek aldi baterako programak garatuko dituzte.

Enplegu Planerako aurreikusitako gastua hazi da.



**Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia**

Langileriako beste gastu batzuei dagokienean, haborokinetarako zenbateko bat gehitu da, pensio planetako ekarpenetarako %2ko igoera aurreikuspen batekin eta gizarte-aseguruak %1eko igoera aurreikuspen batekin. Era beran, bizitza aseguru eta langileen istripuen zenbatekoa ere jaso da, izapidetzen ari den lehiaketaren oinarriaren arabera. Langileen prestakuntzarako partidari ere eusten zaio.

## **2. Kapituluak. - Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea.**

2017ko aurrekontuarekiko , kapituluak, guztira, %2,17ko igoera du.

Partida batzuetan beheranzko doikuntzak egin dira, aurrekontuan argi eta garbi azaltzeko zeintzuk diren jaramon egin beharreko benetako beharrianak. Doikuntza horiek, honakoa izenpetzen duenaren iritziz, ez dute inola ere zerbitzuen kalitatea eta kopurua murrizten; aitzitik, baliabideen esleipena eta gastuaren arrazoizko erabilera hobetzen da horri esker. Igoera zerbitzu eta hornidura kontratuetarako atalen ondorioz eman da.

## **3. Kapituluak. Finantza gastuak**

2017ko aurrekontuarekiko, kapituluak, guztira, %25eko jaitsiera du.

Aurreikusitako zorpetzearen ondorioz ordaindu beharreko interesak aurrekontuan sartu dira.

## **4. Kapituluak. - Transferentzia arruntak.**

2017ko aurrekontuarekiko, kapituluak, guztira, %2,51ko igoera du.

Kulturarako Ametx Erakunde Autonomoari emango zaion diru-laguntza hazi egin da, zerbitzuen funtzionamenduari lotutako gastuak igo egin direlako.

Elizbarrutiko Misiolari Karmeldarrek Kongoko Errepublika Demokratikoan duten Katindo Misioarekiko elkartasun-konpromisoari eutsiko zaio eta horretarako, 25.000 € emango dira. Bestalde, “Oscar del Perú” GKEarekin elkartasunerako konpromisoa mantentzen da, 25.000 € emanez, Euskal Fondoak 35.000 € jasoko ditu eta Amanecer Solidario GKeri ematen zaion diru kopurua ere gehitu egingo da: 10.000 euro.

Elkarlanerako konpromisoa mantentzen da, baita ere, Desgaitasun Fisiko eta Psikikoa dutenen Elkartarekin (116.000 €), Adinekoen Elkartarekin (10.000 €), Ostalari eta Merkatarien Elkartarekin (33.000 €) eta Iraunkor Elkartarekin (3.000 €).



Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia

Tximeleta Guraso Elkartearekin Haurreskola mantentzeko hartutako konpromisoari ere eusten zaio, 21.000 euroekin.

## 6. Kapituluak. - Inbertsio errealak

Inbertsio garrantzitsuenak dagokion inbertsio-planean daude adierazita:

Programa:	Ekonomikoa	Azalpena	2018
1321	62203	UDALTZAINGOA. BULEGOAK BIRMOLDAKETA	189.000,00
1511	64200	ETXEBIZITZA ETA HIRIGINTZA. PLANGINTZA (HAPO)	50.400,00
1533	60100	BIDE PUBLIKOAK ETA AZPIEG. BIDE PUBLIKOAK HOBETZEA	100.000,00
1533	60103	BIDE PUBLIKOAK ETA AZPIEGITURAK. BIDEGORRI SAREA	600.000,00
1533	60106	BIDE PUBLIKOAK ETA AZPIEG. BIDE PUBLIKOETAKO OZTOPO ARKITEK KENDU	120.000,00
1533	60107	BIDE PUBLIKOAK ETA AZPIEG. SAN MIGEL KALEA BERRIRO URBANIZATZEA	869.485,00
1533	60108	BIDE PUBLIKOAK ETA AZPIEG. LEGARREBI – SAN JUAN URBANIZAZIOA	200.000,00
1534	68400	OBRETAKO LANTALDEA. OBRETAKO LANTALDEAREN KAMIOIA	150.932,00
1611	62705	UR HORNIDURA ETA BANAKETA. HORNIDURA SAN JUAN AUZOA	120.000,00
1641	62301	HILERRIA. JASOGAILUA	35.000,00
1661	62703	SANEAMENDUA. BAÑERA AUZOKO SANEAMENDU PROIEKTUA	150.000,00
2315	62204	NAFARROA ZENTROA. NAFARROA ZENTROA ERABERRITZEA	550.000,00
3301	62204	"AMETX" KULTURA ETA EUSKARA. ZELAIETA ZENTROA HANDITZEA	39.827,00
3401	62204	KIROLAK. "URGOZO" KIROLDEGIAREN PROIEKTUA	142.655,00
9201	62600	ZERBITZU OROKORRAK. INFORMATIKAKO EKIPOAK	10.000,00
9202	62207	ERAIKIN PUBLIKOAK. HERRITARREN ARRETA ZERBITZURAKO LANAK	60.500,00
9202	62502	ERAIKIN PUBLIKOAK. HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA EKIPAMENDUA	40.000,00
9311	64900	ARTEKARITZA BESTELAKO IBILGETU INMATERIALA	10.890,00
<b>Guztira</b>			<b>3.438.689,00</b>

Kapitulua guztira 3. 438. 689,00 € ditu. Horrenbestez, 2017ko aurrekontuarekiko %6,20 jaisten da.

## 7. Kapituluak. - Kapital transferentziak

Ez dira aurreikusten kapital diru-laguntzak.

## 9. Kapituluak. Finantza-pasiboak

2018. urtean mailegua amortizatzeko beharrezko kopuruak jasotzen dira.



**Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia**

## ***DIRU SARREREN AURREKONTUA***

Indarrean dauden zerga Ordenantzak, itundu gabeko zerga, zerga itundu eta legez dagokien zergetako partaidetzak aintzat hartuz, 2018an kitatzea aurreikusita dauden zenbateko guztiak esleitu dira.

Amorebieta-Etxano, 2017ko azaroaren 13a.

ALKATEA,

Izp.: : Andoni Agirrebeitia Abendibar